

# ERAKUNDE-ERALDAKETA FEMINISTA

**ALBOAN** GGKetik eta **REAS Euskadi**-Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Saretik, honako jarduera hau sustatzen ari gara: Euskadiko eta Latinoamerikako Ekonomia Sozial eta Solidarioko (ESS) eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoroko (GEHS) erakunde eta enpresei sentsibilizazioa, prestakuntza eta laguntza eskaintzea, barne-prozesuak ikuspegi feminista batetik berrikusteko tresnak ezagutu ditzaten edo horietan sakondu dezaten.

## Zer da?

2020an, **Genero-berdintasuna. Ekonomia Solidarioko erakundeentzako pistak**<sup>1</sup> izeneko gida argitaratu genuen REAS Euskadik eta ALBOANek. Bertan, argibide eta tresna batzuk eskaini genizkien ESSko eta GEHSko erakundeei, beraien barne-prozesuak erakunde-eraldaketa feministaren ikuspegitik aztertzeko.

Gida horrek galderak, dinamikak eta adibide batzuk eskaintzen ditu gai hauek aztertzeko eta horietaz hausnartzeko: gure lan- eta funtzionamendu-ereduak, botere-harremanak, laneko bizitzaren eta bizitza pribatuaren arteko uztarketa, eta erakunde-balioak eta -kultura, besteak beste.

### HELBURUAK:

- ESSko eta GHEsko erakundeak eta enpresak sentikortzea, barne-azterketa egin dezaten ikuspegi kritiko feminista batetik, eta berrikuste-prozesu horretarako tresnak eta prestakuntza eskaintzea.
- Erakundeei laguntza metodologikoa ematea **Genero-berdintasuna. Ekonomia Solidarioko erakundeentzako pistak** gidan jasotako alderdietako batzuk diseinatu eta/edo azter ditzaten (**plaza mugatuak**)
- Ikasketak biltzea, gida horretan jasotako dinamika eta tresnetan txertatzeko.

[DOKUMENTUA IKUSI](#)

## Zer egingo dugu?

**Onlineko prozesu malgu bat** prestatu dugu, eta **2023ko martxoan eta ekainean** zehar eramango dugu aurrera. Prozesu horretan, **prestakuntza-saio irekiak eta barneko lan-saioak** egongo dira erakunde-alderdiren baten diseinu metodologikoa eta analisia egiteko aukeratutako erakundeekin, eta prestakuntzako ikasketak gure analisi- eta berrikuste-prozesuetan xertatzen saiatuko gara. **Guztira lau lansaio birtual egingo ditugu:**

### 1 LANSAIOA GIDA AURKEZTEA ETA PROZESUA PROPOSATZEA

Ordubeteko saio irekia izango da, Genero-berdintasuna. Ekonomia Solidarioko erakundeentzako pistak gida eta prozesu honen bidez plazaratu dugun laguntza-proposamena ezagutu nahi dituzten erakunde guztiei zuzendua.

### 2 LANSAIOA ERAKUNDE-ERALDAKETA FEMINISTA. ZAILTASUNAK ETA ERRESISTENTZIAK

**A/** Ordubeteko prestakuntza-ekintza irekia. Hau izango dugu bideratzaile: Silvia Piris, Soziologian lizentziaduna, EHuko emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko eragilea, Nazioarteko Lankidetzan eta Garapenean masterduna, feminista eta **Colectiva XXK** taldeko kidea.

**B/** Ordubeteko barneko lan-saioa aukeratutako erakundeekin. Bertan, identifikatutako erresistentziak gainditzeko analisiak eta estrategiak landuko ditugu.

1. Gida honetan aztertzen diren alderdiek prozesu hau dute oinarri: «Tamaina garrantzitsua delako erakunde bizigarriak eraikitzeke garaian». Sustatzaileak: **REAS Euskadi**, **Colectiva XXK**, **Colaboradora** eta **equipare**. Argitalpen honetan jasotzen dira prozesuaren ondorioetako batzuk: **Bizigarria izango da edo ez da izango: gure erakunde (txikietarako) apunte feministak**.

### 3 LANSAIOA ERAKUNDE-KULTURA ETA PROZESUEN GAINEKO BEGIRADA INTERSEKZIONALA

**A/** Ordubete eta hogeit hamar minutuko prestakuntza-ekintza irekia. Bi dinamizatzaile izango ditugu: batetik, Miriam Nobre, Brasilgo ekintzaile feminista eta agronomoa, SOF (Sempreviva Organização Feminista) taldeko kidea, eta, bestetik, Lorena Pajares genero eta garapeneko aholkularia eta ikertzailea. 2003az geroztik, generoa eta bere intersekzioarekin lotutako gaietan lan egiten du, besteak beste, erakundea aldatzeko prozesuak.

**B/** Ordubeteko barneko lan-saioa aukeratutako erakundeekin. Bertan, erakunde-kultura eta botere-harremanak aztertzeko tresnak aurkeztuko ditugu.

### 4 LANSAIOA IKASKETAK ETA TRESNEN BALORAZIOA

Ordubeteko barneko lan-saioa laguntza-prozesuko laguntzaileekin, ikasketak jasotzeko eta prozesuaren balorazioa egiteko.

LANSAIOA	EGUNA	MOTA	ORDUTEGIA	HIZLARIAK / DINAMIZATZAILEAK
1. GIDA ETA LAGUNTZA-PROPOSAMENA AURKEZTEA	MARTXOAREN 9a	IREKIA	16:00-17:00	ALBOAN / REAS EUSKADI
2. ERAKUNDE-ERALDAKETA FEMINISTA: ZAILTASUNAK ETA ERRESISTENTZIAK	MARTXOAREN 30a	IREKIA	16:00-16:55	SILVIA PIRIS / COLECTIVA XXK
		ITXIA	17:00-18:00	ALBOAN / REAS EUSKADI
3. ERAKUNDE-KULTURA ETA BEGIRADA INTERSEKZIONALA	APIRILAREN 20a	IREKIA	16:00-17:20	LORENA PAJARES / MIRIAM NOBRE
		ITXIA	17:30-18:30	ALBOAN / REAS EUSKADI
4. IKASKETAK ETA TRESNARAKO HOBETUNTZAK	ZEHAZTEKE	ITXIA	16:00-17:00	ALBOAN / REAS EUSKADI

## Nork har dezake parte?

Euskadiko eta Latinoamerikako erakunde eta enpresek, baldin eta erakunde-eraldaketa feministari lotutako tresna eta gaien inguruan gehiago jakin nahi badute eta/edo erakundearen barne-mailako harremanak eta genero-dinamikak aztertzeko prozesua egiten hasi nahi badute (edo hasi badira).

## Nola eman dezaket izena?

### Parte hartzeko bi modu daude:

**1.** Prestakuntza-saio batean edo gehiagotan parte hartzea. Saio bakoitzean izena emateko aukera egongo da, eta interesdun guztiek eman ahaliko dute izena. Saio bakoitza modu independentean antolatuko da.

**2.** Zure erakundea ikuspegi feministatik gogoeta eta analisisa egiteko unean badago, saio guztietara etortzea proposatzen dizugu (prestakuntza-ekintza irekiak eta barneko lan saioak). Prozesuaren talde dinamizatzaileak guztioi prestakuntza metodologikoa emateko baldintzak sortuko ditu.

### KONTAKTUA:

Zalora Pérez / REAS Euskadi  
zperez@reaseuskadi.eus

Sandra Delgado / ALBOAN  
s.delgado@alboan.org

Prestakuntza-saio ireki bakoitzari buruzko informazioa jaso edo prozesu osoan izena eman nahi baduzu, **bete izena emateko galdetegia.**

**IZEN-EMATEA**